



35. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA

35. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Marta Lasa Goñi, Andoaingo Udaleko Euskararako zinegotzi arduraduna.
- Mahaikideak: Eneko Bidegain Aire, Itxaro Borda, Aingeru Epaltza Ruiz de Alda, Miren Gabantxo Uriagereka, Pantxika Maitia eta Ion Muñoa Errasti.
- Idazkaria: Arantza Aguado Perugorria, Andoaingo Udaleko euskara teknikaria.

Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu du, gehiengoz.

AZKEN ERABAKIA

Epaimahaiak 2023ko urriaren 16an izendatu zituen zortzi finalistak, sari atal bakoitzeko launa, ondorengoak:

Kazetaritza Sarirako FINALISTAK:

<i>BIDEAK</i> podcasta, NAIZ Irratia eta Mediabask
<i>Zelan sentitzen zara?</i> , <i>Geuria</i> komunikabidearen ale berezia
<i>KINKA</i> podcasta, BERRIA
<i>Urte batetik bertzera, mundu batetik bertzera</i> , Xabier Itzainaren kronika sorta, <i>dantza.eus</i> .

Komunikazio Sarirako FINALISTAK:

<i>Lore hostoak</i> podcasta
<i>#10garrena</i> , ETBko podcasta
<i>Muak.ET</i> webseriea
<i>Harpa Jotzen</i> podcasta

Maila bereko baina ezaugarri ezberdinetako bi sarik osatzen dute 2023ko Rikardo Arregi Kazetaritza Saria: *kazetaritza saria* eta *komunikazio saria*. 2023ko azaroaren 14an epaimahaiak egindako bileran, jada aipatutako zortzi finalisten artean, batzuen eta besteen merezimenduei buruz eta saridun izateko egokieraziritziak azaldu eta eztabaidan jardun ondoren, honakoak dira epaimahaiak gehiengoz saridun izendatu dituenak:

Kazetaritza saria 2023: BIDEAK, NAIZ Irratiak eta Mediabask-ek ekoiztako podcasta



Larritasun bereziko gaia jorratzen da Bideak podcastean, askotan ikusten ez dugun edo ikusi nahi ez dugun errealitatearen berri ematen digu, migrazioarena. Irungo Santiago zubia igarotzean, baina baita egunerokoan zapaltzen ditugun karrika eta espazioetan ere begi bistan ditugun pertsona migratuak eta beren istorioak ikusezin bihurtzen zaizkigu, badirudi “betaurreko beltzekin” ikusten ditugula.

Podcastaren zazpi ataletan lekukotasun anitzak aurkezten dizkigute, hunkigarriak, askotan gure barnea mugiarazten dutenak, pertsonalak baina, aldi berean, guztiz unibertsalak. Egitura berak balio lezake idatzizko erreportajea ekoizteko, baina podcast formatuak ahalbidetzen du elementu biziagoak erabiltzea, euskarazko kazetaritzan egun jorratzen ari den bidetik. Sekuentziak ondo lotzen dira, forma biziz, eta atal bakoitzaren bukaerak bultzatzen zaitu hurrengo ikustera.

Bukatzeko esan Naiz eta Mediabask hedabideen elkarlan honek emaitza ezin hobea eman duela, beste proiektu batzuentzat ere eredu izan daitekeena, ziurrenik.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Komunikazio saria 2023: Lore hostoak podcasta (EITB Podcast)

Musika eta kalaka uztartzen ditu Lore Hostoak podcast-ak, EITB-ren eskutik. Ekain Perezek gidatzen duen podcastean euskal musikari baten bizitza eta ibilbide profesionalean murgiltzen gaitu musikariak gustukoaren eta erreferentziatzko dituen musikaren bidez. Denboraren mugarriaren zamarik gabe, 60 saiotik gora daude entzungai une honetan. Ekainen ahotsak eta elkarrizketa eramateko erak komunikazio berezia lortzen dute kazetari eta musikariaren artean, entzulea aparteko unibertso batera eramaten duena. Hasiera batean egitura sinplea dirudiena, konplexua da benetan.

Musikariek dituzten musika erreferentziak aurkezten dira saioak, eta horrek aukera ematen digu, saioz saio, euskal musikaren genealogia hobeto ezagutzeko. Bertan egungo proposamen berrienak garai bateko musikekin gurutzatu egiten dira. Kantutik kantura konpainia onean eramaten gaituzte aurkezleak eta gonbidatuak. Hori guztia, hostoz hosto.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Era berean epaimahaiak ohorezko mugarrria eskaini dio **Menane Oxandabaratz** kazetariari, jarraian azaltzen diren merituengatik:

Ohorezko Mugarrria: Menane Oxandabaratz

Menane Oxandabaratz (Gamarte, 1962) Irulegiko Irratiaren sortzaileetako izan zen. 1980ko hamarkadaren hasieran, Ipar Euskal Herriko herri irratiek funtsezko tresna izan ziren hango euskaldunengana heltzeko, tokian tokiko eta Euskal Herri osoko berriak eramateko, euskal musika eta kultura etxeetako sukaldeetaraino sartzeko eta hedabideen kanala hein batez euskalduntzeko. Dozenaka boluntarioen lan militantea ezinbestekoa zen irrati haiek aitzina eramateko, eta Oxandabaratz gidari erreferentea izan zen: irratiko lehendakari ardura bete zuen zenbait urtez eta, batez ere, kazetari boluntario aritu zen hogeitabat urtez. “Ez da musik” saioa izan zen haren lan



entzunena: Euskal Herriko ehunka jende ezagunen sakoneko elkarrizketa bereziak egin zituen. Hori guztia, bitartean gasnategi batean lanean ari zela.

Kazetaritza boluntariorik kazetaritza profesionalera iragan zen duela zenbait urte, Herria astekariaren gidaritza hartu zuenean. Astekaria zaharberritu du, dozenaka kolaboratzailearen sareari eutsi dio eta sare hori zabaldu. Lan orduz gain, militantzia ordu anitz eskaini dio herria josteko funtzioa duen astekariari: herriz herriko berrien bidez, gai sozialak jorratuz, Euskal Herriko eta mundu zabaleko albisteak landuz eta aldizkaria osatzeko baitezpadakoa den herritarren sare militanteari kohesioa emanez.

Euskal Herrian herritarren parte hartzeari esker ekimen handiak egin daitezkeela (edo lan boluntario eta antolaturik gabe euskararen sustapena ezinezkoa litzatekeela) frogatzen duen horietakoa da Menane Oxandabaratx.

Pablo Gonzalezi eta gerra eremuetan dabilzan kazetariei aipamena

67 kazetari eta hedabideetako langile hil zituzten joan den 2022an, lanean ari zirelarik edo egiten ari ziren lanaren ondorioz. Zaurituak ehunka; preso sartuak edo, besterik gabe, isilaraziak, beste hainbat. 2023 hau ez da oraindik akitu baina iaz baino are hitsagoa gertatzeko itxura guztia hartu diogu. Lerro hauek idatzi orduko 50 ziren Gazan Israelgo armadaren su gupidagabearen ondorioz bizia galdutako informazioaren profesionalak. 50, Gazako muga hertsietatik atera gabe. Iazko ekitaldian salatu genuen eta gauza bera adierazi beharrean gaude aurten ere: garesti dabil kazetaritza. Merke, berriz, desinformazioa eta sasi kazetaritza.

Aspaldi errana da: gerla urte, gezur urte. Horrek Palestinarako balio du, Ukrainarako eta munduko beste hamaika zokotarako. Boteretsuak beren egia inposatzeko baliabide guztiak erabiltzen ditu eta aldeko ez duena itzaltzen. Euskal Herrian ere badugu horren berri. Urte bat eta zortzi hilabeteren ondotik, Pablo Gonzalez kazetariak preso segitzen du, epaiketarik gabe, Poloniako kartzela batean, gure agintariei, itxura batean, ardura handirik piztu gabe. Harendako eta esetsiak diren kazetari guzti-guztiendako askatasuna eta justizia eskatzeko ere balio dezala ekitaldi honek.

Azken Erabaki hau epaimahaikide guztiok sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren hogeita bederatzian.

Mahaiburua:
Marta Lasa Goñi

Mahaikideak:

Eneko Bidegain Aire

Itxaro Borda



Aingeru Epaltza Ruiz de Alda

Miren Gabantxo Uriagereka

Pantxika Maitia

Ion Muñoa Errasti

Idazkaria:
Arantza Aguado Perugorria